

GERNIKA-LUMOKO BIZTANLEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA: EUSKARA IKASTEKO, UNIBERTSITATE MAILAKO IKASTAROAK EUSKARAZ BURUTZEKO ETA GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEKO.

1.- OINARRIZKO ARAUAK

a).- Honako diru laguntza deialdia Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko irailaren 11n hartutako ebatziaren arabera egiten da, ebatziari erantsitako araudiari eta Gernika-Lumoko Udalbatzak 2012ko azaroaren 28an izandako ohiko bilkuran onartu zuen “Diru laguntzen Ordenantza”-ri jarraiki. Araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu Ordenantzara joko da (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, diru laguntzak itzultzea, arau-haustea eta zigorrak).

b) Egiten den diru laguntza deialdia 2013-2014 ikasturterakoa da (barne hartuko ditu 2014ko udan egindako ikastaroak) eta indarrean egongo da ebazten denetik 2014ko irailera arte.

c).- Tokiko Gobernu Batzarraren aipatu ebatzia Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da eta horren berri bando bidez zabalduko da udalerri osoan, Gernika-Lumon erroldatutakoei doakielako. Horrez gain, hurrengo zabalkundea egingo da:

- Euskara ikasteko diru laguntzen kasurako, udalerriko euskaltegiei jakinaraziko zaie.
- Unibertsitate mailan euskaraz eratzten diren ikastaroen kasuan, EHU/UPV, UEU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea jarriko dira jakitun.
- Gidabaimena euskaraz ateratzeko diru laguntzen kasurako, udalerriko auto eskolei bidaliko zaie jakinarazpena eta araudia.

d).- Diru laguntza hauek, udal aurrekontuko 5-4514-48100 partidaren bizkar joango dira eta 2013 urterako 14.000 euro burutuko dira guztira.

e) Eskaeren lehentasuna Udal Erregistroko dataren arabera finkatuko da eta, aurreikusitako diru-partida nahiko ez balitz eskaera guztiei erantzuteko, diru laguntzarako eskubidea izan eta jaso barik geratuko liratekeenek, hurrengo urteko aurrekontuaren bizkar jasoko lukete diru laguntza.



f).- Diru laguntza emateko instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Euskara zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.

g).- Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan.

h).- Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, eskatzaileari jakinarazpen pertsonala bidaliko zaio legez finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekursoen berri emango zaio.

i).- Deialdia egin eta eskabideak jaso ahala, bi multzotan banatuko dira ebazteko:

- Urtarrilaren 1etik ekainaren 30era artekoak uztailean ebatziko dira.
- Uztailaren 1etik azaroaren 30era artekoak abenduan ebatziko dira.

j).- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 27. artikulua araber.

2.- XEDE NAGUSIA

Gernika-Lumoko edozein herritarrek euskaraz aritzeko duen eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa da, herritar orok euskaraz komunikatzeko ahalmena izatea.

Bestalde, Gernika-Lumoko Udalak, Euskararen Erabilera arautzen duen 10/82 Legea onartu zenetik, ontzat hartu dituen ordenantzetan eta planetan jaso duen guztiaren arabera, beharrezkoa du herri mailan euskararen sustapena burutzea, euskararen erabilpenaren normalizazioa helburu.

Horretarako, Udalak berak antolatzen dituen kanpainez gairi, euskara ikasteko zein euskaraz trebatzeko ikastaroetarako diru laguntzak eskaini beharra dakusa Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan (2009-2013 epea) aintzat hartutako zenbait ekintzekin bat jotatuta.

Horrez gain, beste esparru bat gehitu zaio araudi honi, gidabaimena euskaraz ateratzeko diru laguntzena alegia. Horretarako, araudi honen 1. gehigarri jo beharko da.

3.- ONURADUNAK

Eskatzaileak, Gernika-Lumon erroldatutako 16 urtetik gorakoak izango dira, edo, "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpainan inplikaturik, Gernika-Lumoko Udalarekin hitzarmena sinatuta duten erakundeetako langileak eta kideak (nahiz eta Gernika-Lumon erroldatuak izan ez).

Salbuespena motorrak gidatzeko baimenaren kasua, 14 urtetik gorakoek ere eskatu ahal izango dutelako horretarako diru laguntza (1. eranskina).

4.- BALDINTZA OROKORRAK

4.1.- HABE-k homologatutako ikastaroetan egin beharko da matrikula. Euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak aintzat hartuko dira eta Barnetegian egindako ikastaroengatik ere jaso ahal izango da laguntza, egoitza eta garraio gastuak kanpo izanik.

4.2.- Euskal Herriko unibertsitateetan (Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea) uda eta opor sasoian burutzen diren ikastaroen kasurako, erakunde bakoitzaren programazioan aintzat hartutakoak izan beharko dira eta osorik euskaraz burutzekoak. Aurreko kasuan bezala, egoitza eta garraio gastuak ez dira diru laguntza gai, beraz, eskaeran zehaztu egin beharko da matrikula kontzeptuan ordaindutakoa.

4.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

4.4.- Eskatzaileak izena eman duen euskaltegian amaitu beharko du ikastaroa.

4.5.- Onuradunak diru laguntza eskatzen duen urratserako edo ikastarorako aurretik beste diru laguntzarik jaso ez izatea.

4.6.- Diru laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen diru laguntzekin, baina, diru laguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

4.7.- Araudi honetako "6.3" y "7". puntuetan zehaztutakoaren arabera zigorren eragina ez izatea.

5.- DIRU LAGUNTZA KOPURUAK

Diru laguntzak bi motakoak izango dira: borondatea erakusteagatik emango direnak eta ikastaroaren aprobetxamenduagatik emandakoak.

Diru laguntzetarako mugak hurrengoak izango dira:

- Ikastaro bakoitzeko 500 € jaso ahal izango ditu eskatzaile bakoitzak gehienez.
- Urtean zehar egin daitezkeen ikastaro guztiengatik eskatzaile batek 800€ jaso ahal izango ditu gehien jota.

5.1.- Matrikulatzeagatik diru laguntzak

Euskaraz ikasteko borondatea erakusteagatik, matrikula egitean ematen den diru laguntza da hau. Matrikularen %40koa izango da gehien jota, eta jasotzailearen diru sarreren eta matrikulatzen den mailaren arabera barematuko da.

Eskatzailearen edota bera parte den familiaren urteko diru-baliabideak, kide kopuruarekin zatituz, norbanakoak urtean duen diru sarrera kalkulatu dugu. Berau, hiru eremutan banatuta dago:

- Urteko eta kideko, 5.000€ edo gutxiagokoa.
- Urteko eta kideko, 5.000€ eta 10.000€ artekoa.
- Urteko eta kideko, 10.000€ edo hortik gorakoa.

Matrikularen maila, Europako mailaketa berriaren arabera zehaztu da, euskararen berezitasunarengatik, *alfabetatze* maila gehitu zaiolarik. Komunikazio ahalmena bermatzeko, gehiago laguntzen zaio maila baxuetan matrikulatzen denari.

Hurrengo taulak, egoera bakoitzari egokitzen zaion diru laguntza erakusten du, matrikularen ehunekotan emanda:

DIRU SARRERAK			
MAILA	<=5.000	>5.000 <10.000	>=10.000
A1	40	30	20
B1	35	25	15
B2 eta Alfabetatzea	30	20	10
C1	25	15	5
C2	20	10	0



5.2.- Ikastaroaren aprobetxamenduagatik diru laguntzak

Ikastaroaren aprobetxamendua, ikastaroaren zehar izandako asistentziaren arabera neurtuko da. Eskatzaileak, %70eko asistentzia bete beharko du eta diru laguntza matrikularen %35ekoa izango da kasu guztietan.

5.3.- Asistentziagatik diru laguntza jasotzeko eskubiderik ez dute izango hurrengoek:

- **5.3.1.-** Aita Villasante Udal Euskaltegiko ikasleek, asistentziagatik bertan eskaintzen delako beka sistema.
- **5.3.2.-** HABEk ematen dituen diru laguntzak jasotzeko azterketa gaindituko luketenek: HABEko 1. maila, 2. maila eta EGA.

5.4.- Dohaintasunerako kasuak.- Dohaintasuna izango dute Oinarrizko Errenta edo antzeko diru laguntza zuzenean jasotzen dutenek edo sendi baten pentsura izanik sendi-buruak jasoko balu; dohaintasuna dagokie baita langabezia daudenei. Dohaintasuna era honetara aplikatuko da:

- **5.4.1.-** Matrikularen %50 ikastaroa hasten denean, 5. atalean aipatuko diren agiriak aurkeztuz gero, Oinarrizko Errenta zein parekoa edo langabezia dagoeneko ziurtagiriarekin batera.
- **5.4.2.-** Matrikularen gainerako %50 ikastaroa amaitu ostean, %70eko asistentzia bete deneko euskaltegiaren ziurtagiria eskaera orriarekin batera aurkeztuz gero. Diru laguntza honetatik kanpo geratuko dira 5.3. atalean aipaturiko kasuetan daudenak.

6.- ESKARIAK ETA AGIRIAK

6.1.- Eskari-orria (1. eranskina) Gernika-Lumoko Alkateari zuzenduko zaio eta, horrekin batera, hurrengo **agiriak** aurkeztu beharko dira:

- Dagokion euskaltegiak/unibertsitateak emandako ikasle-fitxa, matrikulagatik diru laguntza eskatuz gero.



- Aprobetxamenduagatiko diru laguntzarako, asistentziagatiko egiaztagiria, dagokion erakundeak emandakoa.
- Matrikula ordaindu deneko agiria.
- Langabetuaren kasuan, Lanbide-ren egiaztagiriaren fotokopia.
- Langilea edo ikaslearen kasuan, PFEA / IRPF-ren fotokopia (eskatzailearena edo osatzen duen familiarena).
- Errolda egiaztagiria edo "Geure Berbie Euskeraz" hitzarmengintza kanpainan inplikaturako erakundeko langile edo kide izatearen frogak.
- Kasua balitz, Oinarrizko Errenta jasotzailea izateagatiko egiaztagiria.

6.2.- Eskariak aurkezteko epeak:

- **5.2.1.-** Matrikulagatiko diru laguntza eskabidea, ikastaroa hasi eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da.
- **5.2.2.-** Asistentziagatiko diru laguntza eskabidea, ikastaroa bukatu ondorengo hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

6.3.- Akats zuzenketak:

Eskatzen diren derrigorrezko agiri guztiak ez aurkezteagatik edo aurkeztutakoetan akatsak eta hutsuneak daudelako jakinarazpena bidaliko zaio eskatzaileari, jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar egunetako epean behar diren agiriak aurkeztu edo zuzentzearen. Eskatzaileak epe horretan ez balu ezer aurkeztu edo zuzenduko, diru laguntza eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

6.4.- Diru laguntzaren zuriketa

Diru laguntza hauen berezitasuna kontuan izanik, ez da eman osteko zuriketarik eskatuko, eman orduko justifikatu beharko delako matrikula ordaindu izana edota ikastaroaren aprobetxamenduari buruzko erakundearen txostena.



7.- DIRU LAGUNTZA HAUETATIK BAZTERTUAK

Dirulaguntza hauetatik hurrengoak baztertuak izango dira:

- Beharrezkoa den dokumentazioa epez kanpo aurkezten dutenak.
- Derrigorrezkoak diren dokumentu guztiak aurkezten ez dituztenak.
- Azken ikasturtean, maila berdinerako diru laguntza eskuratuta, asistentzia minimoa (%50) gainditu ez dutenak. Salbuetsita geratuko dira ondorengo arrazoiengatik ikastaroa utzi dutenak:
 - Osasun arazoengatik: gaixotasunak, operazioak, amatasuna,... bidezko ziurtagiriarekin.
 - Denbora gabeko erditzea eta amatasunak.
 - Hemen zerrendatu gabeko kasurik alegatuko balitz, Gernika-Lumoko udaleko ahalmena duen organoak ebatziko du, Euskara Zerbitzuak araudi honen ildotik emandako txostenaren argitan.

1. GEHIGARRIA

Indarrean dauden diru laguntzei, gidabaimenaren azterketa euskaraz egiteagatikoa gehitzen zaio hurrengo baldintza hauen menpe:

a).- Kotxerako gidabaimenaren kasuan beharrezkoa izango da eskatzailea 16 urtetik gorakoa izatea eta ziklomotorretarako baimenaren kasuan 14 urtetik gorakoa (16 urtetik beherakoen izenean tutorea edo ordezkari legala arituko da). Bietan Gernika-Lumon erroldatuta egon beharko da.

b).- Gidabaimenaren azterketa euskaraz egin izana egiaztatu egin beharko da Trafiko zuzendaritzak emandako ziurtagiriaren bitartez.

c).- Diru laguntza azterketa egin ostean eskatuko da eta hurrengo baremoaren arabera emango da:

- Kotxerako teorikoa lehenengo deialdian euskaraz egiteagatik, 30 euroko diru laguntza, gainditu zein ez gainditu.

- Kotxerako praktikoa lehenengo deialdian euskaraz egiteagatik, 30 euroko diru laguntza, gainditu ala ez.

- Kotxerako azterketa euskaraz egiteko bigarren deialdira joz gero, 15 euroko diru laguntza jaso ahal izango da teorikoagatik eta beste 15 praktikoagatik, gainditu ala ez.

- Motorrak gidatzeko baimena lortzeko azterketa euskaraz gainditzeagatik (teorikoa eta praktikoa), 30 euroko diru laguntza bakarra.

- Ziklomotorrak gidatzeko baimenaren azterketa euskaraz gainditzeagatik (teorikoa eta praktikoa), 20 euroko diru laguntza bakarra.

d).- Diru laguntza eskaera egiteko, azterketa egin osteko hilabeteko epea egongo da.

e).- Xede honekin emango diren diru laguntzak tramitatzeko eta horretarako erabiliko diren diru kopuruei dagokienean, araudiko 7. arauari eutsiko zaio.